

Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2017ko uztailaren 17tik uztailaren 21erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZ-REN BILERA



Datuaren analisisia

EBZk ez du aldaketarik egin bere diru-politikan. Ez zituen interes-tasak aldatu (% 0 repo eta -% 0,4 gordailua) eta aktiboen erosketa-programa oraindik hilean 60.000 milioi eurokoa izango dela iragarri zuen, 2017ko abendura arte edo areago, beharrezkoa balitz. Hazkunderari dagokionez, komunikatuak baieztatu zuen datuek egoera ekonomiko sendo baten erakusgarri direla eta hazkunde-aukeretarako arriskuak orekatuta daudela, nahiz eta prezioen mailak gaur egun behar baino beherago daudela uste den eta haziko direla espero den.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZEW

Datuaren analisia

ZEW indizearen espektatiben osagaiak desilusia zabaldu zuen, aurreikusi baino pixka bat gehiago jaitsi baitzen uztailean, 17,5eraino (18 aurreikusitakoa eta 18,6 aurrekoa), nahiz eta maila altuetan dagoen oraindik. Oraingo egoeraren osagaiak ere atzera egin zuen 86,4raino, 88an aldaketarik gabe mantentzea espero zenean. Eurogune osoan ere 35,6raino jaitsi zen, aurreko 37,7tik.


Adierazlearen azalpena

Alemaniko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomikoa” islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

ERAKUNTZA BAIMENEN ADIERAZLEAREN ERABERIA

ERAKUNTZA BAIMENEN ADIERAZLEAREN ERABERIA

AEB: Eraikuntza baimenak eta Hasitako etxebizitzak



Datuaren analisia

AEBetan, hasitako etxebizitzaren ekaineko datua pozgarria izan zen, % 8,3 egin baitzuen gora, 1.215 milioietaraino, % 6,2ko hazkundera besterik aurrekusi ez zenean. Aurreko datua ere gorantz berrikusi zen, -% 5,5etik -% 2,8ra. Bestalde, eraikitze baimenak ere emaitza oso positiboa izan zuten, ekainean % 7,4ra igo baitziren (1.254 mila), % 2,8ko igoera aurrekusi bazegoen ere eta aurreko datua -% 4,9koa izan bazen ere.


Adierazlearen azalpena

Hasitako Etxebizitzaren indizeak kasuan kasuko hilean eraikitzen hasi diren egoitza-unitateen kopurua neurtzen du. Adierazle honen bilakaerak familia iparramerikarrek haien finantza-egoeraren gainean daukaten konfiantza-maila erakusten du. Horrez gain, Eraikuntza sektorearen bilakaera islatzen du. Eraikuntza Baimenen adierazlea AEBetako Merkataritza saileko Census Bureauk argitaratzen du hilero. Epe jakin batean eman diren eraikitze lizentzien kopurua neurtzen du. Eraikuntza sektorearen bilakaera islatzen duen adierazle bat da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: Industria-ekoizpena eta Xehekako salmentak

Diario 6/30/2011 - 7/24/2017 ■ Producción Industrial 7.6 +1.1 ■ Ventas Minoristas 11.0 +.3



Datuaren analisisia

Ekaineko xehekako salmenten datuak harridura eta poza eragin zituen, espero baino hobea izan baitzen. % 11raino igo zen, aurreikusitakoa % 10,6 zenean eta aurreko datua % 10,7koa. Ekaineko ekoizpen industrialaren datua ere positiboa izan zen, eta % 7,6raino iritsi zen, aurreko eta aurreikusitako % 6,5aren aldean. Azkenik, Txinan bigarren hiruhilekoko BPGd-aren datua ere argitaratu zen, espero zena baino gehiago hazi zena (% 6,9 urtean vs % 6,8 aurreikusia eta % 6,9 aurrekoa), eskari orokorrari zein barne-eskariari esker.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegiaren arrakasta erakusten ditu.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreiku
07/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
07/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	56.2
07/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.4
07/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.2
07/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
07/24	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzen salmenta	5.56m
07/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzen salmenta	-% 1.2
07/25	Frantzia	Enpresen konfiantza	106
07/25	Alemania	IFO enpresen egoera	114.9
07/25	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	116.0
07/25	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	7
07/26	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	108
07/26	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	% 1.7
07/26	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
07/27	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.6
07/27	Espainia	Langabezia-tasa	% 17.80
07/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 3.0
07/27	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/27	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
07/27	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
07/28	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-10
07/28	Japonia	Langabezia	% 3.0
07/28	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.4
07/28	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1.6
07/28	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.8
07/28	Espainia	Urte arteko BPGd	% 3.1
07/28	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	110.8
07/28	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.7
07/28	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.5
07/28	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.5
07/28	Estatu Batuak	PCE nagusia (QoQ)	--
07/28	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	93.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera negatiboen astea Europan, eta mistoak AEBetan. Europan, EBZren bilera izan zen arreta osoa bereganatu zuena. Azkenean, ez zuen aldaketarik iragarri bere dirupolitikan. Espainian, berriz, NDFk herrialdearen 2017ko hazkunde ekonomikoaren ganean egin zuen berrikuspen positiboak erakarri zituen begirada guztiak. Horri guztiari enpresa-emaitza kaskar batzuen argitalpena gehitu behar zaio, sektore teknologikoari kalteak eragin zizkiona. AEBetan, Trumpek Senatuan Obamacarea indargabetzeko dituen zailtasunei begira egon dira denak. Gertaera horrek bere lana aurrera eramateko gaitasunaren ganean dauden zalantzak areagotu ditu. Horrez gain, hauteskunde-kanpainan Trumpek Errusiarekin zeukan harremana ikertzen ari den fiskalak presidenteak herrialde horrekin dituen negozioak ere ikertuko dituela esaten duen albisteak filtratu zen. Dena dela, Atlantikoaren beste aldean, indize nagusiak maximo historiko berrietara iritsi dira aste honetan. Hala ere, enpresen emaitza ahulak argitaratu ondoren, merkatuen gaineko presioa handitu egin zen, eta maximo horien azpitik itxi zuten astea. Are, Dow Jones-ak pixka bat atzera ere egin zuen. Japoniak, bestalde, aldaketarik gabe itxi zuen astea, eta Gorakorrek, oro har, pixka bat atzera egin zuten.

ERRENTA FINKOIA:

Aste osoan nagusi izan ziren zor publikoaren erosketak, hala Europan nola AEBetan, oro har, bonuen prezioek gora eta errentagarritasunek behera egiten zuten bitartean. Europan, EBZren bilerak berebiziko eragina izan zuen periferian, non 10 urterako espainiar bonuaren errentagarritasunak -20op egin zuen behera, % 1,45eraino. AEBetan, Senatuak Obamacare indargabetzeko eman zuen ezezkoak ere eragina izan zuen, eta errentagarritasunek behera egin zuten. Kredituak hobera egin zuen eta bere marjinak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

AEBetan, Trumpen negozioek Errusiarekin daukaten lotura aztertzeke abiatutako ikerketaren filtrazioak kalte egin zion dolarrari, eta balioa galdu zuen Euroaren aldean. Europan, Erresuma Batuko KPlaren espero baino datu okerragoak eta akordiorik gabe itxi zen Brexita negoziatzeko bilerak eragina izan zuten liberaren kotizazioan, eta balioa galdu zuen txanpon bakarraren aurrean. Lehengaietan, LPEEren aste honetako bileraren zain, petrolio gordinaren prezioa 47,39\$/upela mailaraino jaitsi zen. Urreak, aldiz, balioa irabazi zuen, 1.255\$/ontza mailaraino.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Eur)	171,59	-1,26	1,21
IBEX 35	10.426,60	-2,14	11,49
DJ EURO STOXX 50	3.451,71	-2,11	4,90
DJ STOXX 50	3.118,13	-1,58	3,57
FTSE	7.452,91	1,01	4,34
S&P 500	2.472,54	0,54	10,44
Dow Jones	21.580,07	-0,27	9,20
NASDAQ	6.387,75	1,19	18,66
NIKKEI 225	20.099,75	-0,09	5,16
MSCI EMERGENTES (Eu)	357,21	-0,57	11,25
MEXBOL	51.564,62	0,79	12,97
BOVESPA	64.684,18	-1,15	7,40
SHANGHAI	3.391,18	0,48	4,36
Rusia Rts Moscú	1.024,89	-1,86	-11,06

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brent)	47,39	-2,45	-14,47
Oro	1.255,05	2,14	8,92
Tipos Gobiernos			
	Nivel	Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,64	-0,03	0,13
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,28	-0,03	-0,01
EE.UU 2 AÑOS	1,34	-0,02	0,15
ALEMANIA 10 AÑOS	0,51	-0,09	0,30
ESPAÑA 10 AÑOS	1,45	-0,20	0,07
EE.UU. 10 AÑOS	2,24	-0,09	-0,21
ALEMANIA 30 AÑOS	1,28	-0,05	0,34
ESPAÑA 30 AÑOS	2,74	-0,19	0,12
EE.UU. 30 AÑOS	2,81	-0,11	-0,26
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	52,08	-2,32	-19,96
	53,00	-1,70	-1,70
Divisas			
	Nivel	Semanal	2017
Dólar / Euro	1,17	1,67	10,85
Yen / Euro	129,60	0,40	5,37
Libra/ Euro	0,90	2,51	5,15

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiarekin, osorik edo zati bat argitaratu.